



Materia organikoaren bilketari ekin diote Andoainen

Herrigunean zehar jarritako 70 edukiontzi marroietan materia organikoa uzteko aukera izango dute andoaindarrek.

Andoaingo zen Gipuzkoan materia organikoa biltzeko aukera eskaintzen ez zuen herri bakarretakoa. Aurreko agintaldian ezartzerik ez zen izan, eta orain Tolosako Mankomunitatearen bitartez, Andoaingo eta Amasa-Villabonako herritarrek organikoa biltzeko sistema bateratua izango dute. Udalak eta Mankomunitateak etxe etxe informazio osoa emateari ekin diote. Hezitzaileen bisita jasoko dute andoaindarrek, etxean bereizketa ahalik eta gehien errazteko eta beharrezko informazio guztia emateko asmoz. Hezitzaileen bisitaren zain egon gabe, udaletxean bertan Atariako bulegoetan beharrezko materiala eskuratzeko aukera dago. Zehazki, ontzi aireztatua, poltsa konpostagarriak, edukiontzia irekitzeko txartela eta informa-



Pixkanaka herrigune osora zabalduko dituzte materia organikoaren edukiontziak.

zio-imana. Goizez eta arratsalde zabalik izango da Ataria zerbitzua.

AMA KANDIDAN HASITA

Ama Kandida eta Manuel Lekuona izango dira lehenbiziko auzuneak, eta kanpaina lau asteetan luzatzea espero da.

Materia organikoaren bilketan parte hartzea borondatezkoa bada ere, Ana Carrerek

Ama Kandida eta Manuel Lekuonan auzuneetan hasi dira, hilabeteetan herrigune osora zabaltzeko

kanpainarekin bat egiteko deia luzatu zien andoaindarrei, "Andoain gaikako bilketan atzeratu samar dabil. Tolosaldeko bilketa apalena du, %29-30ko por-

tzentaira iristen baita. Gaur egun errefusara doan gehiena organikoari dagokio. Ingurumenarekiko sentsibilizazio handia dagoenez, kanpainak herritarren artean erantzun ona izango duela espero dugu".

Andoaingo Udala eta Tolosaldeko Mankomunitatea "Guztion artean jasangarriago" kanpaina elkarlanean egingen ari dira.



Ibilgailu klasikoaren topaketa Urnietan

Igandean, irailak 18, Berrosoetako aparkalekuan bilduko dira ibilgailu klasikoaren jabeak. Urnietan eta andoaindarrentzat garai bateko ibilgailuak bertatik bertara ezagutzeko aukera bikaina izango da. Erakustaldia izateaz gain, erregularitate proba izango da. Ekimen hauetan 25 urtetik gorako ibilgailuek parte har dezakete, eta gidariak antolakuntzak ipinitako ibilbidea adierazitako ibilbidean egin beharko dute. Xoxoka Motor Kirol Klub elkarteak da probaren antolatzailea.

Egitaraua:

- 09:30-11:30 Izen-ematea.
- 12:00 Lehen parte hartzailearen irteera.
- 13:30 Lehen parte hartzailearen iritsiera.
- 14:00 Bazkaria eta sari-banaketa ekitaldia.

Egape ikastolak urteurreneko ekitaldia antolatu du ostiralerako

50. urteurreneko lehen ekitaldia ostiral honetan bertan egingo dute, 12:00etan hasita Lizardi kaleko eraikin nagusiaren jolas parkean.

Bertan izango dira instituzioetako ordezkariak, ikastolaren sortzaileak, ikasleak, irakasleak, gurasoak, eta abar... Instituzietako ordezkarien eta ikastolako zuzendariaren hitzez



Egape ikastolako ikasle taldea, aurreko ikasturtean.

gain, trikitixa eta txalaparta doinuak eta ikasle ohien bertsoak ez dira faltako.

GURASOEI EKITALDIRA HURBILTZEKO GONBITEA

Egape ikastolatik gonbidapena luzatu diete ikastolarekin lotura izan duten guraso guztiei. Ekitaldia, bide batez, herritar guztiei irekia izango da.

Ikasturte honetan Egape ikastolak 50 urte betetzen ditu. Hori dela eta ikasturtean zehar gauzatuko dituzten ekin-tza ugari antolatu dituzte.

Futbol taldeen denboraldi hasiera

Asteburu honetan ekingo diote denboraldi berriari Erregional Preferente mailan arituko diren Euskalduna eta Urnieta taldeek. Andoaindarrek Trintxerpen ekingo diote denboraldi berriari eta Urnietak etxean jasoko du Mariño taldea. Urnieta KE taldeak, bide batez, aurreko astean egin zuen denboraldi berriaren aurkezpena.

“400 istorio” ikuskizuna, datorren irailaren 24an



Jauregi, Pagola eta Rosco ikuskizunaren aurkezpenean.

Aurreko Aiurri astekarian Antton Jauregi eta Juxto Egaña eragileekin luze eta zabal jardun ostean, astelehen goizean Urnietako Udalak ikuskizuna aurkezteko hedabideen aurreko agerraldia deitu zuen. Mikel Pagola alkateak egin zuen ikuskizunaren eta protagonisten aurkezpena: “Urnietan hiru ikuskizun indartsu antolatuta dira azken urteotan eta horien bitartez Urnietako historia antzeztu eta abestu izan da. Herriko ondarea aberasteko baliagarria izan zaigula esan daiteke. Ekimen horretan ardura handiena herriko eragile talde batek izan du eta horietako bat Antton Jauregi da”.

Alkateak agerraldi horretan adierazi zuenez, Urnietak herri gisa 400 urte bete zituenean eragile talde horren eskutik jaso zuten “Marizulo”, “Urnietako 59” eta “1936” ikuskizunen pasarteak batuko zituen emanaldia egiteko proposamena. Gerora, “400 istorio” izena ipini diotena.

Antton Jauregik azken urteotan egindakoa “altxortzat” jo zuen: “Herri gutxitan gertatu da, egin ditugun ikuskizunetan herriko historia bildu baitugu. Antzerki berria egitea ezinezkoa zitzagun, baina gaur arte bildutako material guztiarekin ikuskizuna osa zitekeela pentsatu genuen”. 70eko hamarkada, Iberiar penintsulatik eratorritako migrazioa, 36ko Ge-

“Marizulo”, “Urnietako 59” eta “1936” ikuskizunak herriko ondarea aberasteko baliagarria izan zaigu

Mikel Pagola

Herri gutxitan gertatu da, egin ditugun ikuskizunetan herriko historia bildu dugu

Antton Jauregi

rra..., gai eta garai ezberdina islatuko dituzte.

Ikus-entzunezko ikuskizuna izango da, hiru minutuko sei bideo pasarte eskainiko baitira. Bideo atal bakoitzaren hasieran edo bukaeran gaztelaniazko laburpena agertuko dutela adierazi zuten, gonbitea herrikide guztiei eginez horrela: “Urnietarrak denok gara, baita euskaraz ez dakitenak ere. Guk ikuskizunera urnietar guztiak joatea nahi dugu. Euskaraz ez dakienak ikuskizuna jarraitzeko inongo arazorik ez du izango”.

Bideoez eta zuzeneko musikaz gain, Edu Muruamendiaren koreografiak eta Egape dantza taldearen mailaz gozatzeko aukera berria izango da. Sarrerak Saroben daude salgai, 5 euroko prezioan.

Irailaren 23an, gaueko 22:00etan “Gabon Txirrita” kiroldegian

Donostiako estreinalditik Urnietako kiroldegira



Amaiera gogoangarria izan zen. Zutik jarritako ikuslegoaren txaloek parte hartzaileen zirrara eta poza eragin zuten.

Irailaren 10a. Iritsi zen egun seinalatua eta goizeko bederatzietarako hasi ziren Trinitate plazako eszenatokiko azpiegitura guztia prestatze lanetan. Lan asko zegoen egiteko, baina, eguerdirako emanaldirako ia erabat itxuratuta zegoen, musikariak, bazkal aurreko une horretan eguzkipean entseatzeko ikus zitezkeen, Joxan Goikoetxearen esanetara.

Arratsaldeko hirurretan iritsi zen kapitalera Urnietako antzeztuak eta dantzariak zekartzan autobusa. San Telmo museoan arropak utzi, eta zuzenean plazara bideratu zen taldea, entsegu orokorrari hasiera emateko. Ahalegin berezia eskatu zien bero izugarriarekin, izerditan blai eginda, egin zuten plazara egokitze entseguak. Luze joan zen, seirak ondotoxo pasata baitziren, etxeko lanak eginda, ondoko karpnizizka mizka batzuk dastatuz tertulia atseginean elkartu zirenerako.

San Telmo museosa itzuli bezain azkar, jantzi eta makilatze erabili zituzten hurrengo ordu pare bat. Plazara bueltatu zirenerako, eguna gauari leku uzten hasia zegoen, eta tenperatura askoz eramangarriagoa zen.

Berehala iritsi ziren ikuslegoaren lehen barre-alarak, lehen txaloak

Bederatziak aurretik, jendearen plazara sartzea girotu zuten musikariek. Horretarako, Letek eta Valverdek Txirritaren bertsoekin osatutako diskoetan erabilitako doinuak aireratu zituzten maisuki. Bederatzietan, plaza jadanik beteta (sarrera guztiak agortu ziren) aktoreen artean urduritasuna eta ardura. Elkarri animoa emanez azken besarkadak. Aukera bikaina zen. Lekua paregabea. Erabateko iluntasunean, hasi zen emanaldia, sagardotegian girotutako eszena jendetsuarekin. Berehala iritsi ziren ikuslegoaren lehen barre-alarak, lehen txaloak. Harrera beroa, zalan-tzarik gabe, bertaratu zirenen aldetik.

Ondoren etorri zen Txirritaren epaiketa, eta juez anderearen aurrean beren lekukotza ematera agertu ziren fiskalak zein Txirritaren defentsoreak eskatutako testiguak. Denen artean, hitz eta bertso bidez,

Txirritaren garaiko euskal munduaren erretratu bat osatuz. Aldekoak eta kontrakoak entzun ondoren etorri zen sententzia eta amaiera alaia, zutik jarritako publikoaren txalo zaparrada, parte hartzaileen artean zirrara eta poza. Lan bikaina egin dute Urnietako aktore amateurrekin Miren Gojenola eta Mikel Laskurain zuzendariek, eta beraiek, zein aktoreak, musikariak eta dantzariak pozik zeuden egindako lanarekin, publikoak erakutsitako atxikimenduarekin, nahiz eta emanaldia erabat borobila izatea oztopatu zuten soinu akatsak tarteko izan.

Eguna behar bezala amaitzeko, Okendo jatetxean egindako afarian elkartu ziren parte-hartzaile guztiak. Antzerkigintzak elkartutako adin guztiatiko Urnietako artalde koloretso eta zaratsua, etxe bakoitzeko onena, dagoeneko urduritasunak atzean utzita, bapo afaldu ondoren beren festa partikularrekin jarraitzeko prest.

DATORRENA, URNIETAN

Irailaren 23an, 22:00etan Urnietako kiroldegian ikusteko parada izango da.



Elkarriketak, hemeroteka, antzezlanaren garapena...

Eduki gehiago
www.aiurri.eus webgunean
komunitatea atalean
aiurri.eus/komunitatea/gabontxirrita

Irailaren 24an gaueko 21:30ean Oianume jatetxean

Oianumeko bertso afaria datorren irailaren 24an

Miela batzordeak antolatuta, datorren irailaren 24an (larunbata), gaueko 21:30etan egingo da Oianume jatetxean, Sanmielen atarian, ohiko bihurtu den bertso afaria. Afaria ezagun egin da bertan sortzen den giro bereziagatik. Aurtengo berezitasunik nabarmenena, emanaldia bertso musikatuak osatuko dutela. Bi bertsolari izango dira, biak ere eskarmentu handikoak. Alde batetik, Oscar Estanga nafarra, eta bestetik, Oihana Iguaran amasarra.

Estangak Nafarroako bertsolari txapelketetan finalera iristea ohituta dago. Bertsogintzaz gain, ikuskizun eta musika ekimen ugarietan parte hartu izan du.

Iguaranek, berriz, Gipuzkoako azken bertsolari txapelketako finalean abestu zuen eta geroztik saioak ugaritu egin zaizkio. Uda honetan, esaterako, maiz igo da taula gainera



Oihana Iguaran bertsolaria.

puntako bertsolariekin buruz buru aritzera.

TXARTELAK SALGAI

Aurretik erosi behar dira, eta dagoeneko salgai daude 25 euroko prezioan, Xauxar eta Kantoi tabernetan eta baita Oianume jatetxean bertan ere.



Oscar Estanga bertsolaria.

Txartelak erosteko azken eguna, irailaren 21a izango da. 25 euroko prezioan dagoeneko salgai daude

Txartelak erosteko azken eguna, irailaren 21a izango da.

Irailaren 25ean lehiaketa eguna eta sari banaketa ekitaldia

Pintura lehiaketaren hogeigarren edizioa

Irailaren 25ean, igandearrekin, pintura lehiaketaren hogeigarren edizioari ekingo diote. Parte hartzaileek egunean bertan agertu beharko dute Sarobera izena ematea, 09:00etatik 10:00etara.

Izena ematearekin batera, parte hartzaileei oihalak zigila-

tuko zaizkie. Aurten, hauteskunde egunarekin bat egiten duenez, lehiaketaren izen-ematea, lanak entregatzea eta sari banaketa ekitaldia Saroben bertan egingo dituzte.

Oinarriak ikusgai daude Udalaren urnieta.eus webgunean.

Ordutegia:

09:00-10:00 Izen-ematea.
16:30-17:30 Lanak aurkeztu.
19:00 Sari-banaketa.

Sariak:

1. saria: 750 euro.
2. saria: 450 euro.
1. urnietarra: 300 euro.

Urriaren 2an San Juan plazan, Aurrera Gure Ametsaren eskutik

Ingurutxoa Sanmieletan

Sanmieletako igandean, Aurrera Gure Ametsa dantza taldeak Ingurutxoa eskainiko du San Juan plazan. Dantza taldeak parte hartzeko deia zabaldu nahi die urnietar guztiei: "Ikasi eta parte hartu nahi baduzu

deitu edo izena eman gure helbide elektronikoan:

• 674 252 581
• agaurnieta@gmail.com".

ENTSEGUAK DENDA BERRIN

Asteazkeno, 19:00-20:00.

DANTZAK URTEAN ZEHAR

Aurrera Gure Ametsa taldeak, ohar berean, urtean zehar eskal dantzak ikasteko eskaintza luzatu du. Izen-ematea irailaren 28ra artekoa da. Ikasten hasteko adin mugarik ez dago.

Iñaki Arantzadi gogoan



Iñaki Arantzadi aski maitea zen urnietarren artean.

Irailaren 11n Iñaki Arantzadien heriotzaren lehen urteurrena bete zen, bere jakinduriak eta bizitzeko pozak umezurtz utzi zituela Urnietan maite zuten guztiak. San Juan plaza hutsik sumatzen dute askok geroztik. Oraindik ere, udazken honetan Aiurri aste-karian aukera izango dugu hark utzitako idatzi batzuez gozatzeko, idatzirik utzi zituen

bere azken iritzi, istorio eta aholkuak, hain zuzen ere.

MEZA HILAREN 25EAN

Urnietako eliz-elkarteak eta parrokiak haren aldeko meza atera du, irailaren 25ean ospatuko dena, igandearrekin, eguerdiko hamabietan hasita (12:00). Deia zabaldu du urnietarrek bere oroitzapena eskain diezaioten don Iñakiri.

Martxan da Gaztelekua



Garazi Jauregi eta Unai Esnal Gaztelekuko hezitzaileak.

Aste honetan bertan ireki dute Urnietako Gaztelekua. Ikasturtearekin batera hasi dute martxa beraiek ere, betiko ordutegiarekin, eta datorren astetik aurrera ekintza irekiak antolatuko dituzte nerabe guztientzat "Ongi etorri" programaren barruan.

Astelehenean, ate irekien jardunaldia egin zuten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin, Gaztelekuko espazioak erakusteko eta arauak azaltzeko. "Gaztelekuaren aurkezpenean egindako deialdiak arrakasta handia eduki zuten, ia adin horretako guztiak etorri baitziren. 58 gazte gerturatu ziren guztira", zehaztu du Unai Esnal hezitzaileak. Arauak eta Gaztelekua bera ezagutzeaz gain, zein motatako ekintzak egingen dituzten jakiteko balio izan zieten harrera egunak.

Orain, eguneroko martxa hartzen ari direla azaldu dute hezitzaileak. "Garrantzitsua

da Gaztelekuko dinamika ezagutzea: zaharragoak diren gazteekin egotea, espazioen banaketa ezagutzea, gatazkak sortzen direnetan konpontzen jakitea...". Aste hau, beraz, egokitze fasea izanik, ez dute ezer berezirik programatu eta datorren astetako utzi dituzte ekintzak.

EKINTZA BEREZIAK ASTELEHENETIK AURRERA

Irailaren 19ko astean hasiko dira ekintza bereziak: sukaldaritza tailerra, giltza tailerra, badminton txapelketa binaka, mahai jolasen topaketak... Horrez gain, Sanmiel jaietan, irailaren 28an, merendola antolatu dute eta ondoren, guztiak elkarrekin joango dira jaietako txupinazora. "Gaztelekuan egon beharrean, herrian jaiak direla aprobetxatuko dugu kalera irteteko. Mielaren jaitziera ikusiko dugu guztiok batera", azaldu dute.

OSTEGUNEAN LEITZATIK BARRENA ANDOAINERA IRITSIKO DIRA, OSTIRALEAN URNIETA ALDERA ABIATZEKO

Gurdi bidea eskualdean barrena

Ostegun honetan eguerdiko 13:00ak aldera iritsiko da Gurdi Bidea Andoainera, goizean goiz Leitzatik irten eta Plazaolako bidea zeharkatu eta gero. Larunbatean Pasai San Pedrorra iritsiko da, helmugara.

Ekimena DSS2016 Europar Hiriburutasunean "Itsasgileak" egitarauaren baitan kokatzen da. Bere sustatzaileak Quintanar de la Sierrako Cabaña Real de Carreteros eta Albaola kultur elkarteak dira.

Otietako Bisitarien Etxean eman go zaio ongiatorria espedizioari. Bertan izango dira Udal ordezkariak, eta horiekin batera Burdina taldeko eta Santiago bideko kideak. Arratsaldean, espedizio kideei Bisitarien Etxea erakutsiko diete. Hirurogei bat lagunek osatzen dute taldea: idiak eta behien ardura daramaten abeltzainek eta horiekin batera bidelagun doazen beste zenbait pertsonak.

ANDOAIN, URNIETA, PASAIA

Taldeak Andoainen egingo du ostegun gaua; idia eta behiak eta horien bi zaintzaile Otieta bertan geratuko dira, eta gainerakoak Arrate pilotalekuko azpialdera eta erromesen aterpexera abiatuko dira.

Hurrengo goizean, ostiralean, 08:00ak aldera Urnietarako norabidea hartuko dute,



Ikusgarria da karabana, eta harrera beroa jaso du Burgos, Araba eta Nafarroako herrialdeetan igaro dituen herri gehienetan.

Plazaolako bide gorrian barrena. Martutene izango dute helmuga. Azkenik, larunbatean, irailaren 17an, Burgosen hasi-

tako bidaiaren azken etapari ekingo diote, Pasai San Pedron kokatzen den Albaola faktoria iritsiz.

BURGOSETIK PASAIARA

Gurdi bidea, Cabaña Real de Carreterosetik (Burgos) abiatu eta hemezortzi egunetan Pasaia-

ra iristeko asmoa daukan egitasmoa da, idiz eta behiz osatuta, garai bateko bidea eginez.

Ekimena DSS2016 Europar Hiriburutasunean "Itsasgileak" egitarauaren baitan kokatzen da. Bere sustatzaileak Quintanar de la Sierrako Cabaña Real de Carreteros eta Albaola kultur elkarteak dira. Lehenak baso eta larre iberikoen balore eta erabilgarritasuna mantendu eta zabaldu nahi dute, esparru kultural eta etnografikoa, baita basokoan ere. Albaolaren helburuak, berriz, itsas ondarea ezagutzera eman eta babestea da. Hain zuzen ere, XVI. mendean hondoratu zen San Juan baleontziaren errepi-karen eraikuntza burutzen ari da Albaola elkarte Pasaiaiko portuan daukan museoan, eta gurdiak beharrezkoa den bidea eta alkitrana dakarte.

Sanmielak

2016
URNIETA

Urriak 2

X. Iñistor jaia

Jakutegi plazan

12:30 X. Maldan-gorako Iñistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Bertsolariak.
Uxue Alberdi (Getaria), Miren Amuriza (Berriz), Unai Muñoa (Lasarte-Oria) eta Ander Lizarralde (Oiartzun). Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

17:30 "Urnietar Prestu" 2016 izendapena.
Jokin Lizeaga korrikalaria izango da omendua.

19:00 VIII. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.

Antolatzaileak:
Iñistorra Euskaltzainen Biltzaina, Muzel Larrañendi Kultur Bazkonekoa

Laguntzaileak:
Txarbolin bistulari banda, Egape Dantza Taldea

Babesleak:
Urnietako Udala, Aizuri zesteak



andoaINDARRA
euskaraz
eguna

Irailak 24
ANDOAIN
GOIKOPLAZA

2016

- 10:00** Umeentzako lantegiak
- 10:30** Herrian zehar DIANA
- 11:00** Argazki-rallyan izen ematea
- 11:30** Herriko elkarte gastronomikoen MARMITAKO erraldoiaren prestaketan hasiko dira
- 12:00** Neska eta mutilen pilota partidak Kontzejupean
- 12:30** Sagardo KATA Irati Amondarainek gidatuta (aurretik tiketak erosi ATARIAN)
- 13:30** Patata tortilla lehiaketa (etxetik ekarri egina)
- 14:00** MOKADU tartea (marmitakoa + patata tortilla)
- 14:30** Musika: Fino's Band
- 16:00** DINGO!!
- 17:00** Gazteselfie
- 19:00** EROmeria
- 19:30** Pintxo poteoa + kantu kalejira + bertsolariak
- 22:30** BasqExtremFolk musika eta antzerki ikuskizuna
- 23:30** Zo-zongo!!! ikuskizuna

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



ANDOAINGO UDALA
Euskararen
Normalizaziorako
Lansaila

ANDOAIN | Gehigarri berezia Andoaingo Udalarekin elkarlanean


HASIERA EUSKARA ANDOAINEN ALBISTEAK ARGAZKIAK ETA BIDEOAK



andoaINDARRA
euskaraz.eus



I. andoaINDARRA
euskaraz
eguna



EUSKARA ZERBITZUA EUSKARAZ BIZI ▾ HAURRAK ETA GAZTEAK ▾ GURASOAK ▾ DIRULAGUNTZAK ▾ KIROLA EUSKARAZ ▾ RAKS

Askoren lanari esker aurrera aterako den eguna



Arantza Aguado.

ARANTZA AGUADO UDAL TEKNIKARIA KOORDINAZIO LANETAN BURU-BELARRI MURGILDUTA DABIL EGUNOTAN.

Irailaren 7an agerraldi jendetsua egin zenuten Goikoplazan, Andoaindarraren euskaraz eguna aurkezteko. Ekimen kolektibo modura uler al daiteke euskararen aldeko eguna?

Hasieratik gure nahia ahalik eta jende gehien inguratzea izan zen, elkarte modura zein maila pertsonalean. Udalak azpiegitura ipintzen eta gastuak bere gain hartzen lagunduko du, baina ekintzak herriko eragileen eskutik antolatzeari nahi gunden. Alde horretatik proposamenetara zabalik egon gara, eta hasieran egitaraua xumeagoa bazen ere, herri eragileen ekarpenekin egun osoko egitaraua osatu dugu.

Herri mailan kohesioa areagotzeko urrats berri bat da, bide batez...

Euskarak dituen ahuldadeak aztertzerakoan, euskalgintzan daudenen arteko saretze falta behin baino gehiagotan aipatu da. Euskaldunen kolektiboa sakanatuta dagoela, beste modu batera esanda. Horren aurrean saretze hori sustatzea garrantzia handikotzat hartzen gunden. Euskararen eguna aukera ona da saretze hori sustatzeko.

Ospakizunak Goikoplazan izatea erabaki gunden, euskararen ahozko erabilera herriko beste eremuetan baina apalagoa delako.

Euskara plazara eramango duzue, beraz. Goikoplazakoa eremu irekia eta zabala da. Parte hartze handia beharko da.

Oso garbi gunden kalean izan behar zuela, Andoainen euskara kalean entzutea premia delako. Irailaren 24an eus-

“Ospakizunak Goikoplazan izatea erabaki gunden, euskararen ahozko erabilera herriko beste eremuetan baina apalagoa delako”

ARANTZA AGUADO

kaldunak badirela eta giro euskaldunaren bizi garena erakutsi nahi dugu. Euskararekiko kontzientzia handia ez dutenen horiengana iritsi beharra dagoelako.

Parte hartzeari dagokionez, ekimen handi honen hasieran ez gunden parte hartze handirik irudikatzen, baina irailaren 7ko aurkezpenarekin herritar kopuru handi samarra bil genezakeela iruditzen zait. Horrez gain, egitaraua handitzen joan da herri eragile ezberdinak proposamen berriekin hurbildu zaizkigulako. Nolanahi ere, lehen edizioa da eta ez nuke eragileak gehiegi estutzerik nahi. Indarrak neurtu beharko genituzke.

Ospakizunen biharamunean jarrita, antolatzaile modura, zerk asebeteko zintuzke?

Parte hartzen dutenek egun atsegina eta dibertigarria igarotzea nahiko nuke. Ez da estu ibiltzeko eguna, ondo pasatzeko baizik. Elkarte gastronomikoetako kideek, esaterako, marmitakoa prestatzen ere ondo pasatzea nahiko nuke. Izan dadila festa bat lanean ari direnentzat eta ikuslego zabalarentzat.



Garazi Kamio, Garazi Jauregi, Jon Oiartzun eta Rebeka Gestoso.

EUSKARAREN EGUNAK BADU BERE KANTUA, ETA BAITA KOREOGRAFIA ERE.

Eguna antolatzearekin batera, ospakizunari hitza eta doinua jartzea erabaki zuten. Udan kantua aurkeztu zuten eta dagoeneko internet sarean entzungai dago. Musika Jon Oiartzunen da eta hitza, berriz, Garazi Kamiok idatzi du. Ahotsetan Lorratzak taldeko Garazi Jauregi eta Rebeka Gestoso aritu dira. Kantuak, nola ez, euskaraz bizitzeko gonbitea luzatzen du.

HITZAK KANTATZEKO

Badator itzaletik kalera Andoain bustitzera hitzez hitz arnasten geroari bide egitera. Itzalik izango ez duen hizkuntzaren ubera, andoaindarrok eguneroko euskaraz biziko gera.

Kiribildu euskaraz!
Kalera, euskara zabaltzera!


Atzo bezala gaur ere bihar datorrenari, eutsi indarrez apustuari tira barruko senari. Zabaldu hamaika hitz ez itxi aterik esna dezagun euskara Andoaingo lozorrotik.

Andoaindarraren euskaraz!
Kalera, kalera euskera!
Irten kalera iritsi da eta gure aukera euskaraz bizi, esna amestu andoaindarraren euskaraz!

Arratsaldeko 19:00etan hasita, kantua entzutearekin batera nahi duenak Leire Rekaldek landutako koreografia dantzatzeko aukera izango du

PAUSOAK DANTZATZEKO

Kantuz gozatzeko aukera egon bada, dantzaren bitartez. Eta dagoeneko Leire Rekaldek koreografia egin du, bideoan ikusgai dagoena. Arratsaldeko 19:00etan nahi duenak kantuarekin batera dantza egiteko aukera izango du.



QRaren bitartez kantuaren gainean egindako koreografiaren bideoa ikus daiteke. Arratsaldeko 19:00etarako dantza saioa iragarrita dago.



Euskararekiko kezka erronka bilakatuta

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO AZKEN NEURKETETAN JAITSIERA ANTZEMATEN DA. HORRI AURRE EGITEKO UDALAK ETA HERRIKO HAINBAT ERAGILEK KEZKA BADUTE, ERRONKA BILAKATU DUTEN KEZKA.

Euskararen erabilera edota ikasketa arearagotzeko, eragile sozial eta politikokoak ekimen ezberdinak burutzen ari dira urteotan. Kezka bizi dute euskararen erabileran gertatu den jaitsiera, eta eskuak gurutzaturik egon beharrean udal teknikari, politikari eta herritarrez osaturiko batzordea lanean hasi zen. Zerbait egin beharra zegoen, eta euskararen aldeko sentsibilizazioa areagotzeko asmoz euskarari egun bat eskaintzea erabaki zuten. Horixe da **Andoaindarra euskaraz egunaren** abiapuntua. Irailaren 24an euskara andoaindarron ahotan ipini nahi dute, Goikoplaza inguruan antolatutako egitarau oparoaren bitartez. Hauteskondeen bezpera izanik, erreflexio eguna izango da. Ez litzateke txarra izango herrikide askok erreflexio egunean euskararen inguruan hausnarketa egiteko tarte hartzea. Udalak, gainera, segida eman nahi dio ekimenari. Gogotsu daude, euskararen egunaren lehen edizioa dela iragarri baitute. Hurrengo urteetan, beraz, ekimenak jarraipena izango duela dirudi.

Kezka erronka bilakatu dute. Irailaren 24az geroztik, antolatzaileek Andoain pittin bat euskaldunago nahiko lukete, eta nola ez euskara ahoan maizago erabiltzea. Erronka horri eustea giltzarri izango da hurrengo urteetan. Izan ere, orain arte eskuartera iritsitako erabilera datuak ez dira onak. Euskararen jakintza geroz eta handiagoa da, euskaraz dakitenen kopurua dagoeneko handi samarra baita. Arazoa ahozkotatunean dago, datuek Andoain euskara ahoan darabilen herritarren joera beharrezkoa dela adierazten baitute.

2013ko datuen arabera, euskararen erabilera apaltzen ari da Andoaingo kaleetan. Orduko hartan Andoaingo Udalak argitara eman zituen Soziolinguistika Klusterrak egindako kale neurketaren emaitzak eta 2011n antzeman zen behe-



Azken ikerketen arabera, dakitenek ez dute euskara erabiltzen.

ranzko joera hori baieztatu zen. Orduko Aiurrin argitaratu bezala, Andoain 2013ko maiatzaren 22a eta ekainaren 16a bitartean egin zuten kale-neurketan, behaketa zuzenean oinarritu ziren. Alegia, neurtzaileak herriko kaleetan zehar topatzen zuen jendeak hizketarako erabilitako hizkuntza jasotzen zuen, ezertxo ere galdetu gabe. Entzuten jarri eta erabilitako hizkuntza neurtzen zuen. Taldekako elkarrizketa-hizkuntza neurtu zuten, zehatzago esanda. Irizpide nagusia herriko kale jendetsuenak biltzea izan zen eta datuak jasotzeko garaian hiru aldagai soziologiko kontuan hartu zituzten: sexua, haurren presentzia eta taldearen adin osaketa.

2013an 2.629 elkarrizketa aztertu zituzten, 6.805 pertsonen osatutako lagina lortuz. Gaztelania nagusitu zen, nabarmen. Gainera, beste hizkuntza batzuetan uste baino gutxiago entzuten

zen kalean. Ikerketa haren arabera, Andoain seitek bat aritzen zen kalean euskaraz.

HIZKUNTZA BAKOITZAREN ERABILERA

% 80,3	Gaztelaniaz.
% 18,8	Euskaraz.
% 0,9	Beste hizkuntza batean.

Andoain Eustatek argitara emandako datuen arabera, %75a euskalduna da edo euskararen nolabaiteko ezagutza du. Gainerako %25a, aldiz, eralduna da. Datu horiek eskuetan, eta Txillardegik bere garaian zerabilen teoriaren arabera, Andoain espero daitekeen euskararen erabilera %21ean kokatu beharko litzateke. 2011ko eta 2013ko azterlanek maila horren azpiko emaitza eman dute. Dakitenek, ez dute behar adina euskara erabiltzen. Kezkatzeko moduko datua da hori, beraz.

ADINAREN ARABERAKO ERABILERA

Datu baikorrek nabarmentze aldera, zenbat eta belaunaldi gazteagokoa izan, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara ahoan.

ERABILERA	ADINA
% 34,7	2-14 urte
% 21,5	Gazteak
% 15,5	Helduak
% 9,8	Adinekoak

EREMUAREN ARABERAKO ERABILERA

% 27,8	Kaleberria, Allurralde.
% 18,7	Dr. Huitzi, Bastero, Ondarreta.
% 16,9	Karrika.
% 16,1	Urigain ingurua.
% 13,6	Plazaola.
% 12,6	Goikoplaza.
% 10,3	Ama Kandida, Osasun Etxea.

EUSKARAREN ERABILERA ANDOAINEN, AZKEN HAMARKADATOKO GARAPENA

1979	% 14,8	2001	% 16,1
1988	% 19,1	2002	% 23,1
1996	% 21,4	2006	% 26,4
1997	% 21,6	2011	% 16,6
1998	% 20,8	2013	% 18,8
1999	% 24,1		

GAITASUNA ETA ERABILERA EREMUZ EREMU

Eremua	Erabilera	Gaitasuna
Andoain	% 18,8	% 52,4
Donostialdea	% 20,6	% 42,4
Gipuzkoa	% 32,7	% 52,0
EAE	% 16,1	% 37,4
EH	% 13,3	% 27,6

Erronka argia da, kezka uxatzea. Eta horretarako zer hobea euskararen aldeko sentsibilizazioa lantzea baino. Eta horrela euskararen erabilera datuak gorunzko joeran jartzea lortzen den.

**ERAIKI
EUSKADI**

URKULLU
LEHENDAKARI




Babes zabala lortzen ari den ospakizuna

HERRITARRAK, JAI BATZORDEAK, GIZARTE ETA KIROL MAILAKO TALDEAK,... DOZENAKA PERTSONA, TALDE ETA ELKARTEK ERAKUTSI DUTE EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA. GUZTIAK IKUSGAI DAUDE ANDOAINDARRAEUSKARAZ.EUS WEBGUNEAN.



Andoain, euskaraz bizi nahi duen herria

IRAILAREN ZAZPIAN HERRIKO ERAGILE EZBERDINEK AGERRALDI JENDETSUA EGIN ZUTEN ANDOAINARRA EUSKARAN EGUNARI ATXIKIMENDUA ADIERAZTEKO.



Eragile ezberdinek bat egin zuten euskararen egunaren aurkezpen ekitaldian.

Elkarte gastronomikoak, kultur eta gizarte mailako eragileak, euskararen aldeko elkar-teetako ordezkariak, ordezkari politikoak, herritarrak..., aurreko astean talde handi samarra elkartu zen datorren irailaren 24ko ospakizunari atxikimendua adierazteko. Taldeko argazkia egiteaz gain, **Ainara Rodriguez** Euskararen Normalkuntzarako Batzordeko arduradunak eta **Ainhoa Aiertza** herri eragileak adierazpena egin zuten.

Hausnarketa luzearen ostean jauzi kualitatiboa emateko ordua iritsi zela adierazi zuen Rodriguez zinegotziak: "Gure herrian euskararen ezagutzak gora egin arren, erabilera ez da neurri berean igotzen. Azken datuen arabera, %18ak darabil euskara kalean. Hemen gauden andoaindarrok datu horiek aldatzea nahi dugu, datu horiek irauli nahi ditugu. Kezka horretatik abiatuta, herriko zenbait eragile Euskararen

"Jauzi kualitatiboa emateko garaia da, euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egin behar dela sinetsita"

AINARA RODRIGUEZ

Aholku Batzordean elkartu ginen. Gure herriko euskararen egoera hobetzea izan da lantalde horren egiteko nagusia. Hausnarketak egiteaz gain, hainbat ekimen antolatu izan dugu.

Jauzi kualitatiboa emateko garaia dela uste dugu, euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egin behar dela sinetsita. Ho-

"Denetik izango da egun osoan zehar. Egun horretan andoaindar guztiak parte hartzera gonbidatu nahi ditugu"

AINHOA AIERTZA

rregatik kaleak bustitzera gatoz. Datorren irailaren 24an Andoaindarrak Euskaraz eguna ospatuko dugu hemen, Goikoplazan. Andoaindar guztien eguna izatea nahi dugu eta horregatik herriko hainbat eragilek parte hartuko dute".

Ainhoa Aiertzak egitarauaren xehetasunak eskaini zituen, goizeko

10:00etan hasi eta goizaldeko 02:00ak arte luzatuko direnak: "Haur jarduerekin abiatuko da eguna, eta ordu bere-tuan herriko toki ezberdinetatik musika talde ezberdinak abiatuko dira Goikoplazan guztiek bat egiteko.

Elkarteen artean marmitakoa prestatzeko lehiaketa egingo da, eta hortik aurrera hamaika jarduera gehiago: Musika, sagardo dastaketa..., denetik izango da egun osoan zehar. Egun horretan parte hartzera andoaindar guztiak gonbidatu nahi ditugu".

Norberaren indarra baliatuz, datorren irailaren 24an euskararen aldeko energia sortzea helburu dutela esanez amaitu zuten agerraldia: "Argi dugu gure herria euskalduna dela, eta gutako bakoitzaren indarra behar-beharrezkoa da euskarak aurrera egin dezan". Gorbitea luzatuta dago.

HEMEN eta
DENON HERRIA ORAIN

EGIN HERRI

EKITALDIA ANDOAINEN
Irailak 21, asteazkena.
19:00, Zumea plaza

LARRAITZ UGARTEREKIN
EGIN HERRI! ondoren luntxa

ehbildu



Marmitako erraldoia

HERRIKO ELKARTE GASTRONOMIKO GEHIENEK MARMITAKOAREN PRESTAKETAN PARTE HARTUKO DUTE.



Marmitakoa prestatzen lagun taldea, Bilboko jaietan. Han duen arrakasta bera izango al du Andoainen!

Elkarte gastronomikoak herriko martxan garrantzia handikoak dira. Andoainen lehendik ere elkarten artean egitasmo ezberdinak sustatu dira. Irailaren 24ari begira, elkarteetako kideen aldetik inplikazio maila handia izan da. Euskararen egunean haien lana herrikide askoren otordu bilakatuko da. Izan ere, elkarte bakoitzak 30 lagunentzako marmitakoa prestatu beharko du. Eta, ondoren, marmitako hori herritarren artean prezio xumean eskainiko da. Bilboko jaietan tradizio handikoa da marmitakoa. Andoainen ere herritar askoren artean gosea

Elkarte bakoitzak hogeita hamar lagunentzat marmitakoa prestatu beharko du. Herritarrek dastatuko dute, ondoren

piztuaraziko duela ziurra da. Bazkariko menua osatzeko patata tortilla lehiaketa antolatu dute. 13:30erako aurkeztu behar dira, Goikoplazan.

Pintxo potea

GOIKOPLAZA INGURUKO TABERNETAN PINTXO POTEA EGONGO DA, TABERNARIEN EKIMENEZ.



Ramon Elizondo Elizondo tabernakoa eta Unai Goikoetxea Aterpe tabernakoa, Goikoplazan.

Aterpe tabernako **Unai Goikoetxea** izan da pintxo potearen sustatzaileetakoa, jaiaren bere aletxoak jartzea beharrezko ikusi baitzuen: “euskalduna naiz eta euskararen egunean zerbait berezia egitea beharrezko nuela iruditu zitzaidan”. Pozik agertu ziren **Ramon Elizondo** Elizondo tabernakoa eta Unai Goikoetxea Aterpe tabernakoa Aiurrik Goikoplazan ipini zien hitzordura. Biek, eta plaza inguruko beste tabernari gehiagok ere, pintxo potearen bitartez bat egingo dute Andoain-darra euskaraz egunarekin.

“Euskalduna naiz eta euskararen egunean zerbait berezia egitea beharrezko nuela iruditu zitzaidan”

UNAI GOIKOETXEA

Pintxo potea kantu kalejirarekin eta bertsolarien parte hartzearekin osatuko da. Gaueko hitzorduak iristerako, giroa plazan gori-gori egongo da.

AIURRI ETXEAN JASOTZEN HASTEKO ZEREN ZAIN ZAUDE?

ANDOINGO ETA ESKUALDEKO ALBISTEAK ASTERO, ETXERAINO



HAMABOSKARIA - ALDIZKARIA
24 orrialde
urtean **22** aldizkari



ASTEKARIA - TABLOIDEA
12-16-24 orrialde
urtean **42** astekari

URTE OSOKO HARPIDETZA SARIA: 35 EURO



HARPIDETZA-TXARTELA BETE ETA GURI HELARAZI

Izen-deiturak:

.....

Jaiotze data:

N.A.N.:

Tel.:

Helbidea:

Herria: Posta kodea:

Emaila:

ORDAINKETA:

Banketxetik (laukitxoak bete)

IBAN Entitatea Bulegoa K.D. Kontu zenbakia

Gure kontuan sarrera eginez: 2095 5095 40 1062760003

1 DEITU
943 300 732
08:30-17:30

2 FAXA
943 300 731

3 EMAILA
idazkaritza@aiurri.eus

4 POSTAZ
Arantzibia 4-5, behea
20.140 Andoain

5 WEBGUNEA
Aiurri.eus



Irailak 24
ANDOAIN
GOIKOPLAZA

BasqExtremFolk

ANDOAINARRAK LAUREHUN EKIMENEAN BASTERON ESKAINI ZUTEN IKUSKIZUNA BERRIRO TAULARATUKO DUTE.



Taula gainean eta ezkutuko lanean ibili ziren hainbat kide Basteroko saioa amaitu berritan.

2015eko abenduaren 13an BasqExtremFolk jaialdia eskaini zuten Basteron, Andoainek herri izaera lortu zueneko 400. urteurreneko ospakizunen baitan. Migrazioak hizpide hartuta, kultur ikuskizuna izan zen zeinean dantza, antzerkia eta musika maisuki uztartu zituzten. Andoainarra euskaraz egunaren lehen edizioa Goikoplazan izanik, guztiz egokia iruditu zitzaien orduko ikuskizun hura berreskuratzea. Hogar Extremeñoko **Juanfe Moyano**k estreinaldiaren atarian ikuskizunaren muina horrela azaldu zuen: "Extremadura utzita 60ko hamarkadan Andoainera etorri eta bertan zein jende

"Extremadura utzita 60ko hamarkadan Andoainera etorri eta bertan zer topatu zuen irudikatu nahi izan dugu"

JUANFE MOYANO

eta zein kultura topatu zuen irudikatu nahi izan dugu. Horretarako, antzerkia erantsi diogu ikuskizunari". **Katramila**koak arduratu dira antzerkiaz.

Amaiera ikusgarria

ZO-ZONGO TALDEAK PERKUSIOA, ARGIAK ETA PIROTEKNIA ESKAINIKO DITU EGUNEKO AZKEN EKITALDIAN.



"Psycho clown" du izena Zozongo perkusio taldeak Andoainera ekarriko duen ikuskizunak.

Zo-zongo taldea Oarsoaldeko musikariek abiarazi zuten, eta gaur egun ikuskizun ezberdinak eskaintzen dituen konpainia da. Andoainera ikusgarritasun handiko saioa ekarriko dute, "Psycho clown" izenekoa. Aurkezpen txartela honakoa da: Pailazo talde ero eta beldurgarria Andoainera iritsi da eta bazter guztiak hankaz gora jartzeko prest daude. Bederatzi musikariz osatutako ikuskizuna da eta munduko perkusio erritmo ezberdinak material birziklatuekin egindako instrumentuekin eskainiko dituzte.

Ikuskizunean danborrak argiztatu eta piroteknia jokoak erabiliz, festa burrunbatsua egingo dute

Ikusgarria izango da, oso. Danborrak argiztatu egiten dira. Piroteknia jokoak erabiliz, festa burrunbatsua egingo dute.

ANDOAINEN MATERIA
ORGANIKOAREN
BILKETA HASTERA DOA



Andoainen
%31,96 gaikako bilketan
Helburua, %60ra iristea!!

GUZTION ARTEAN
JASANGARRIAGO
+sostenible



Ekitaldi osagarriak Andoainen, asteburu berean



Amaia Zubeldia Gipuzkoa Sagardogileek elkarteko turismo teknikaria, Esti Mujika Andoaingo Udaleko kultura zinegotzia, Unai Agirre elkarte bereko ordezkaria eta Imanol Etxeberría Ontzako ordezkaria.

EUSKAL HERRIKO BIGARREN SAGARDO TXAPELKETA HERRIKOIA, IRAILAREN HOGEITA LAUAN ANDOAINEN.

Hitzordu gastronomikoa iragarri dute iluntzeko 20:00tarako, Zumea plazan. Euskal Herriko II. Sagardo txapelketa herrikoia finala ospatuko da bertan. Bereizgarri batekin, gainera, afarian parte hartzen duten sagardozaleek egingo dituzte epaile lanak. Afarirako txartelak dagoeneko salgai daude, 25 eurotan.

Sagardoaren festara hurbiltzen direnek, afari gozoa eta sagardo ezberdinak dastatzeaz eta epaitzeaz gain, sagardogileekin iritziak elkar trukatzeko aukera edukiko dute.

Puntuazio sistema berezia izango du txapelketak. Afaltzen hasi orduko, sagardoak mahaira ateratzen hasiko dira eta jendeak edan ahala lote bakoitza puntuatu ahal izango du. Afaltzerantz hurbiltzen diren lagun guztiak izan daitezke epaile.

Bigarren edizioa beteko duen txapelketa honen bidez ohitura zaharrari eutsi nahi dio Sagardogileen elkarteak. Izan ere, historikoki Gipuzkoan egin izan dira antzeko txapelketak, 1967an hasita, eta ohitura horri berreskuratu nahi da.

Gipuzkoako Sagardogileen elkarteak, Eusko Jaurlaritzarekin eta HAZI fundazioarekin elkarlanean antolatzen ari dira. Andoaingo finalerako, berriz, Udala-ren eta Ontzaren babesa jaso dute.

EUSKAL PRODUKTUEN AFARIA

Ontzak antolatuko du afaria, horretarako Zumea plazan jarriko duten karpan. Txartelak salgai daude dagoeneko Ontzan, Ondarreta eta Txuribeltz tabernetan eta Sagardogileen elkartearen bertan (943 336 811).

Zumea plazan ipiniko duten karpara afaltzera hurbiltzen diren lagun guztiak izan daitezke epaimahaiakide

Afariaren menua osatzeko, Basatxerri eta Lurlan elkarteekin lan egin dute. Honako osagaiak izango ditu: Basatxerri urdaiazpiko, txorizo eta pateak, ajoarrieroa Euskaber arrautzarekin, Eusko Labeldun hanburgesa, basatxerri xolomoburu erre pikilo piperrekin, eta, Idiazabalgo gazta.

SAGARDOGILEEN ZERRENDA

36 sagardogile dira denera: Aburuza (Aduna), Aginaga (Aginaga), Akarregi (Hernani), Alberro (Hernani), Añota (Azpeitia), Araeta (Zubieta), Astarbe (Astigarraga), Astiazaran (Donostia), Beltzenia (Iparralde), Bereziartua (Astigarraga), Calonge (Donostia), Eguzkitza (Tolosa), Elutxeta (Urnieta), Eula (Urnieta), Iparragirre (Hernani), Irigoien (Astigarraga), Itxasburu (Hernani), Izeta (Aia), Larrarte (Astigarraga), Lizeaga (Astigarraga), Larregain (Hernani), Oianume (Urnieta), Oiarbide (Astigarraga), Oiharte (Zerain), Ola (Irun), Otatza (Zerain), Otsua Enea (Hernani), Petritegi (Astigarraga), Rezola (Astigarraga), Rufino (Hernani), Satxota (Aia), Setien (Urnieta), Tximista (Ordizia), Urdaira (Usurbil), Uxarte (Zornotza) eta Zabala (Aduna).



Nemesio Zatarain, Arantxa Iartza, Eloi Artolazabal, Garbiñe Agirre, Aitor Amutxastegi, Ane Iartza eta Jon Unanue "Ondarearen Europako jardunaldiak" argitalpena eta afitzarekin.

BISITA GIDATUA IRAILAREN HOGEITA BOSTEAN, ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN BAITAN.

Ondarearen Europako jardunaldietara batu da aurten Gipuzkoa. Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak 1999tik hona antolatzen dute Europako hogeita hamar herrialdeetan. Herritarrak ondareak duen garrantziaz kontzientziaztea helburu izanik, urtero kultur jarduerak antolatzen dira gai bat ardatz hartuta. Aurten aukeratutako gaia "Migrazioak eta Kultura Ondarea" izan da.

Andoainen irailaren 25erako ibilbide gidatua antolatu dute Aita Larramendi eta Agustin Leitza Andoaingo pertsonai historiko ezagunen ibilerak ardatz hartuta.

BI ANDOAINDAR, ELIZA BAT

Aita Larramendi (1690-1766) eta Agustin Leitza (1694-1763). Loiolan bizi zen bat, Argentinako Jujuy bestea. Biek maite zuten, ordea, Andoain. Baten kudeaketa lanak eta bestearen dirutzak San Martin elizaren eraikuntza ahalbidertatu zuten.

Antolatzaileek banatu duten eskuorrian zera diote, "bisitarekin beraiekin biografía, elkarlanean egindako lana eta Andoaingo eliza ezagutzea dugu helburu. Garagorri baserritik abiatuko gara, bertan Larramendiren obra azalduz. Helmuga Goikoplazan izango da, bertan baitago 1956az geroztik Aita Larramendiren ohorez altxatuko eskultura. Iritsitakoan, eliza kanpotik nahiz barrutik bisitatuko dugu. Bertan, Argentinara joandako Nemesio Olariagari esker Parisen egindako Merklin organoa ere ikusiko dugu".

"Migrazioak eta Kultura Ondarea" jardunaldietan, Andoainen ibilbidea antolatu dute irailaren 25erako

Behin elizan eta organoaren ondoren daudela, **Ana Belen Garcia** Merklin organoaren erakustaldia egingo du, piezaren bat edo beste joz.

IRAILAK 25, IGANDEA

Azalpenak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dituzte. Garagorri baserritik abiatuko da irteera, bertara oinez edo autobusez joateko aukera izango delarik.

Egitaraua:

09:45 Bus irteera, Goikoplazatik.
10:00 Garagorritik abiatzea.
Amaiera elizan, eguerdi aldera. Ana Belen Garcia piano-jotzaileak piezaren bat edo beste eskainiko du.

Informazioa, erreserbak:

943 303 540 | kultura1@andoain.eus

Oharra:

Oinetako eroso eramatea gomendatzen da. Aldaparen bat badago ere, erraza da.

Antolatzaileak:

Udala, Larramendi Kultur Bazkuneko bazkideak eta jubilatutako elkarteetako bolondresak.



KIROL ALBISTEAK

Leitzaran eta Plazaolan barrena maratoia

Inguru eta paisai ederrak dira Plazaola-Leitzaran haranetakoak. Horixe aski ezaguna da bertakoen-tzat. Aurreko igandeko mendi lasterketa berri hone-

taz gozatu eta parte hartzera dozenaka korrikalari etorri zen propio. Lehen edizio honetan Andoaingo korrikalariak onenen pare ibili ziren, gainera.

Aurreko igandean Plazaola-Leitzaran Naturbidean barrena maratoia eta maratoi erdia ospatu ziren. Bi probak Plazaola Partzuergo Turistikoko eta Andoaingo Udalak sustatu ditu Diversport enpresarekin batera. Azken hauen eskutik lasterketa "Maraton Vias Verdes" proba sortan sartu dute Madrila, Girona, Castellon eta Tarragonan antolatzen dituzten probekin batera. Instituzioetako ordezkariak pozik agertu ziren ekitaldiak arrakasta handia izan zuelako. Bertakoak eta atzerrikoak kontuan harturik, guztira 425 korrikalari eman zuen izena.

DATORREN URTEARI BEGIRA

Probak jarraipena izango duela dirudi, erakundeek argitara emandako oharren arabera: "Aldaketa desberdinak egin behar direla kontziente izanda, bai antolakuntza, bai komunikazio eta proiektzio arloetan, balantze positiboa egiten dugu".

26 KILOMETROKO LASTERKETA

Azken hiru kilometroak arte, hiru lasterkari izan ziren podiumerako lehian: **Raul Amatriain**, **Ibai Alba** eta **Joseba Jauregi**. Amatriainek irabazi zuen 1:29:41 denborarekin. Ibai Al-



Mikel Rodriguez helmuga zeharkatzen, pozarren.

ba (1:29:49), bigarren izan zen; eta hirugarren postuan Joseba Jauregi (1:30:22) iritsi zen helmugara.

Emakumezkoen mailan, **Uxue Tena** herrikideak hasieratik ederki kontrolatu zuen proba eta erraz irabazi zuen, 1:54:16ko denbora lortuz. Bigarren **Arantxa Perez** izan zen (1:55:16), eta hirugarrena **Ana Gonzalez** (1:58:06).

MARATOIKO ONENAK

42 kilometroko distantzian, 15. kilometroa arte, Andoaingo **Mikel Rodriguez** eta Lleidako **Hugo Figueras** kataluniarra lasterketaren buruan izan zi-



Uztailen zendu zen Uranga adiskidea gogoan, lasterketa burutu zuten.

ren. Apurka-apurka, Mikelek aurea hartu zuen. **Koldo Agirre** iritsi zen bigarren (2:39:04) eta **Hugo Figueras** hirugarren izan zen (2:39:18).

Nesketan, **Eva Esnaola** nagusitu zen (03:09:25). Bigarren **Sonia Bassas** (03:25:20) eta hirugarren **Ainara Murua** (03:25:34).

Kiroldegia berritzeko lehen urratsa

Urnieta

Udalak aste honetan jakinarazi duenez, udal kiroldegia birmoldatzeko proiektua egiteko baldintza-agiria aurkeztu du. Enpresa erikitzailerik bi hilabeteko epea izango dute beren proiektuak aurkezteko. 4.465 m²ko eraikitako azalera erabilgarria aurreikusten da gutxi gorabehera, eta horri estalitako padeleko pistak eta teniseko pista gehitu beharko litzaizkioke.

Hobekuntza lanak bide onean doaz

Andoain

Hobekuntza lanen ostean, eta iragarritako datak betez, ohiko ordutegiarekin zabalik dago Allurralde kiroldegia. Helduen aldagelak mugikortasun gutxiko pertsonen ego-kituta daude. Haur eta taldeentzako aldagelak, bestalde, urria erdialdean irekiko direla jakinarazi dute.

Igeriketa taldea

Andoain

Buruntzaldea IKT taldeak 2016-2017 denboraldiari hasiera eman dio eta oraindik orain izen-ematea zabalik dago "inork hala nahi bado, denboraldi berrian gurekin batera parte har dezan". Andoaingen 2008an jaiotako gaztetxoek eman dezaketeko izena.

Frontoia

Andoain / Urnieta

Irailak 17, larunbata

10:30 Urnieta, paleta:

Urnieta 1- Zestoa.


Urnieta 1- Oiangu.

16:00 Andoain, paleta:

Gazteleku- Urnieta 3.




Urtzi Fernandez, 26 kilometroko proban.



Jon Iturralde, 26 kilometroko proban.



Elena Santervas urnietarra.



Uxue Tena, helmugara iristen.

SORABILLAKO JAIK 2016

Parte hartze handiko festak Sorabillan

Jendearen harrera beroarekin ospatu ziren Sorabillako jaietako ekitaldi gehienak, nahiz eta ostegun eta ostiralak egun pattalak suertatu eguraldiaren ikuspegitik. Azken urtetako giro berebean bizitu ziren

jada jai egitarauan ezinbesteko bihurtu diren auzoko zaharrenen ha- maiketako, musika kontzertua, zikiro jatea, krosa, haur jokoak eta antzerkia, sagardo eguna...

Auzoko helduenei hamaiketako eskainiz ekin zitzaion jaiari. Kontu zaharrak eta ez hain zaharrak berrituz goxatu zuten otorduarekin, eta batez ere, auzoko baserriarrek 1975ean Pankrazio Urkaregiri egin zioten eskertza ekitaldia izan zuten gogoan; izan ere, Urkaregik, borondate hutsez, albaitari lanak bete ohi zituen base- rriz baserri Sorabillan. Egun hartako argazkia dakar aurten- go jai egitarauak azalean, hain zuzen ere. Egun, Manuel Zubeldia, Ventura Uranga eta Inaxio Arteaga dira argazkiko guztien artetik bizi diren bakarrak, eta oroigarri berezia jaso zuten hamaiketakoan.

Ostiral goizeko mendi mar- txar gidatua izan zen bertan be- heratu utzi beharreko ekitaldi bakarra. Sorabilla eta Belko- aingo mendi inguruko parajeetan dagoen kultur ondarea (1936ko lubakiak, mugarriak, karobiak...) bisitatzea eta azal- penak ematea zen helburu, baina euri zaparradak eragotzi egin zuen ahalegina.

Ostirala jai eguna izan zen, eta asteburu luzea izanik, bel- dur ziren antolatzaileak ez ote zen jende gutxitxo azalduko Sorabillara. Aurreikuspen goi- belenak ez ziren bete, hala ere, eta aurreko urteen antzera erantzun zuen jendeak. Jai bat- zordekide den Julian Lopezek aitortu zuenez, "haurrak joko



Perez Lasa Karmen bikotearekin, Pako Perez eta Pantxika Lasa gurasoekin eta gainerako senideekin hurbildu zen omenaldira.

herrikoekin, krosarekin, puz- garriekin eta antzerkian goza- tzen ari direla ikusteak, horre- xegatik bakarrik merezi du hi- labeteetako antolaketa lanetan murgiltzea".

Haur eta helduen partetik ja- so zuen aparteko erantzunaga- tik, Urko Torrek bere hegazti harrapakariekin eskaini zuen erakustaldi pedagogikoa bereizi beharko litzateke beharbada.

AUZOTARREN OMENALDI GOXOA
Migel Angel Perez Lasari es- kainitako omenaldiarekin jaiak

"Sorabillan topatu nuen aterpea, eta harrezkero pribilegiatua eta integratua sentitzen naiz leku zoragarri honetan"

gaina jo zuten hunkigarritasun- ean. 30 urtez epaile bikaina izanagatik eta auzotar gisa ere estimatua izateagatik omenaldi xumea eskaini nahi izan zioten auzotarrek igande eguardian. Aitziber Sarasola aurkezleak Perez Lasaren merituak gogo-

ratu zizkion ekitaldira bertara- tu zen publikoari. Futboleko elitean partidak egoki kudea- tzeko epaileak erakutsitako maisutasuna, diziplina eta prestakuntza fisikoa eta tekni- koa goratu zituen. Autoritatea- ren printzipioa bikain transmi- titu izan zuela azpimarratu zuen Sarasolak; autoritatea, batez ere futbolaren munduan mugitzen diren milioika euroe- kin eta komunikabideen eta zaletuen miresmenekin lainera- zuta bizi diren jokalariren au- rrean.

30 urtetako ibilbidean peliku- letako pertsonaje maltzuraren egitea egokitu zitzaion arren, guztien errespetua irabazten ja- kin zuela gaineratu zuen aurkez- leak. Eta horren adierazletzat jo zuen 2013ko ekainean, legeak behartuta erretiroa hartu zuene- an, Gipuzkoako kirol munduko 700 pertsonak eskaini zioten afari-omenaldia.

Perez Lasak berak hitza har- tu zuen ekitaldian, opariak jaso ostean: "Orain dela 19 urte fut- boleko lehenengo mailan hasi nintzenean, argi neukan leku atseginean erosi behar nuela etxebizitza. Lasaitasuna behar nuen partidak prestatzeko eta kazetariaren zaparradari aurre egiteko. Eta non Sorabillan bai- no egokiago, nire familiaren ondoan Andoainen. Sorabillan topatu nuen aterpea, eta ha- rrezkero pribilegiatua eta inte- gratua sentitzen naiz leku zora- garri honetan, bizilagun jato- rren ondoan". Jai batzordeari eskerrak emanez egin zituen azken hitzak: "Eskerrak eman nahi dizkiet jai batzordeko ki- deei: oso lan polita egiten du- zue auzoaren kultura eta tradi- zioak mantentzeagatik".

Ekitaldiaren amaieran, ohi denez, pilotalekura bertaratu- tako guztiek Iturzaeta eta So- rabilla musika pieza abestu zi- tuzten Gora Kaletxiki txaran- garekin batera, Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduta.



Urki dantza taldeko kideek agurra dantzatu zioten omenduari.



Jai batzordeekin batera: Axun Gonzalez, Kontxi Urkola, Jaione Albiztur, Aitziber Sarasola eta Antton Albiztur.

SORABILLAKO JAIAK 2016



Manuel Zubeldiak, Ventura Urangak eta Inaxio Arteagak oroigarri bana jaso zuten aukazide helduei eskainitako hamaiketakoan.



Karmele Muro sopranoak eta Joxan Paskual organo jotzaileek kontzertu bikaina eskaini zuten, Aitziber Sarasolk aurkeztuta.



Pala herrikoieko Iturzaeta memorialeko finalaren errebantxa jokatu zen ostiral arratsaldean.



Aurten Belkoango mendi krosaren bigarren edizioa jokatu da, bikotekako modalitatean.



Haur eta helduek ontza eskuetan edukitzeko aukera eduki zuten hegazti harrapakarien erakustaldian.



Gozatu ederra hartu zuten haurrek joko herrikoetan.

HEMEN
eta **ORAIN**
DENON HERRIA

Irailaren 21an
EKITALDIA
ANDOAINEN 19:00etan
Zumea plazan

BOZKATU ehbildu

Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakariagaia

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-NURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etexe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 15ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain

■ **Los caballeros blancos:**

Irailak 17: 19:30, 22:00.

Irailak 18: 19:30.

Irailak 19: 19:30, 22:00.

■ **Ice age**, haurrentzat:

17:00. Larunbata, igandea.

Ikastaroak

Andoain

■ Pintura eta marrazketa, arte aplikatuak eta egur taila.

Irailak 19-23:

Lehen aldiz matrikulatuko direnentzat.

Informazioa: 943 30 35 40.

■ Zuen elkartearen eskutik: yoga, pilates, tai chi, maki-lajea, sendabelarrak, arropa konpontzeko ikastaroak, josten ikasteko ikastaroa, eskulanak, musika...

Irailak 19-25:

Matrikula egiteko epea.

Informazioa: 606 929 697.

Urnieta, Sarobe

■ Urnietako antzerki tailerra.

Irailak 30 arte:

Matrikulazio epea.

Orduetgia:

Ostiralero, 19:00-21:00.

Hilean behin, larunbat goizez tailerra.

■ Gimnasia hipopresioa, scretchinga, biodantza, yoga, pilates...

Irailaren 16ra bitarte:

Matrikulazio epea.

Ikasturtearen hasiera:

Urriak 3, astelehena.

Kantujira

Urnieta

■ Egape ikastolaren 50. urteurrenaren baitan.

11:30 Idiazabal kalea.

Irailak 17, larunbata.

Rallya

Urnieta

■ Xoxoka Motor Kirol Klub elkartearen eskutik, ibilgailu klasikoaren topaketa.

09:30 Berrasoeta.

Irailak 18, igandea.

Afaria

Urnieta

■ 1976an Urnietan jaiotakoiei deialdia luzatu nahi diete:

19:00 Poteoa Xoxokan.

20:30 Afaria, betizu jana.

Txartelak salgai: Egur.

Informazioa:

1976kintoak@gmail.com

Urteurrena

Urnieta

■ Egape ikastolaren 50. urteurrenaren lehen ekitaldia.

12:00 Lizardiko eraikina

Irailak 16, ostirala.

Farmaziak

Eskualdea

■ Andoain: **Diaz**. Nagusia, 19.

Urnieta: **Aizpuru**. Hernani.

■ Gauez: **Urrutia**, Hernani.

Etxeberri, 1. Florida.

Irailak 17, 18.

Antzerkia

Urnieta, Kiroldegia

■ **Gabon Txirrita** emanaldia.

Urnietako herritarren eskutik. Sarrerak agortuta.

22:00 Kiroldegia.

Irailak 23, ostirala.

Ikuskizuna

Urnieta, Kiroldegia

■ **400 istorio** musika eta dantza ikuskizuna, Urnietaren historian oinarrituriko ikuskizuna.

Bideo pasarteak elebitan.

Sarrerak salgai: Sarobe.

20:00 Kiroldegia.

Irailak 24, larunbata.

Bertsoak

Urnieta, Oianume

■ Miela batzordeak antolatuta, bertso musikatua **Oskar Estanga** eta **Oihana Iguaranen** eskutik.

Sarrerak: 25 euro.

Kantoi eta Xauxar.

21:30 Oianume.

Irailak 24, larunbata.

Ospakizuna

Urnieta

■ **Iñistor jai**a, euskaltzaleen ospakizuna. Toka, bazkaria, bertsolariak, Jokin Lizeagari Urnietar prestu izendapena.

Herri bazkarirako txartelak salgai.

Urriak 2, igandea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak Elutxeta baserriko **Praxu Urruzola** eta **Miren Ansari**. Irailaren 9an betetako ezkontzaren 59. urteurrenagatik. Gustura ospatu zuten bere seme-alaba, biloba eta birlobekin batera. Eskerrik asko guztiagatik bikote!!

URNIETA

ZORIONAK



Irailaren 24an gure etxeko "ttikiak" 19 urte egingo ditu dagoeneko. Jarraieza zu bizitzaz hainbeste gozaten!!! Etxekoak.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

Erraza da, eta dohainik.

Emaila: diseinua@aiurri.eus

aiurri.eus

619 163 537



Gazte kualifikatuak lanean murgiltzeko ekimena

Buruntzaldea Beterri eskualdeko Udalek Hazilan Programaren lehen edizioa jarri dute abian. Langabezia-egoeran dauden 20 eta 35 urte bitarteko gazte kualifikatuei zuzenduriko egitasmoa da. Izan ere, unibertsitateko edo LH-ko goi-mailako zikloko titula-

zioa duen kolektibo horrek prestakuntza-maila handia badu ere, zailtasun handiak ditu lan-merkatuan sartzeko. Programaren helburua lane-ratze prozesuan laguntza ematea da, prestakuntza pertsonalizatua eskainiz eta hiru hilabeteko praktikak eginez.

Burdina, igandean ETB1ean

Igande honetan, irailak 18, gaueko 22:00etan Auzolan programa berrian hartuko dute parte. Ordu beteko saioa, Burdinako hainbat ki-

deren testigantzekin. Leitzan egindako bi karobien berreskuratze lanetan grabatutako saioa, Ibon Gaztañazpi kazetariarekin.

TXALAPARTA IKASTAROA

2016-2017 IKASTURTEAN ZE HAR
Maizorri txalaparta eskola (Olagain)



IZEN-EMATEAK:
maizorri@gmail.com

Izen-emateko azken eguna, Irailak 23



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA